

**2015**  
**EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA,**  
**OINARRIAK**

**2014/2015 Ikasturtea**

(2014ko uztailetik eta 2015eko irailera bitarte egindako ikastaroak)

Estella-Lizarrako Udalak, Kultura, Hezkuntza, Jai eta Euskara Batzordearen bidez, diru-laguntzak emanen ditu honako **OINARRI** hauek jarraiturik:

**1. XEDEA:** Deialdi honek arautzen dituen beken xedea da euskara ikasteak sortzen duen gastua hein batean finantzatzea.

Gastua ordainduko da 2015eko aurrekontu luzatuko 4513-489000 “Helduen Euskaldunizazioa eta Euskarazko Jarduerak antolatzen dituzten Erakundeak” kontu-sailaren kontura, gehienez ere 7.000 € emanen dira.

**2. BALDINTZAK**

**2.1) Eskatzailearenak:**

Honako baldintza hauek betetzen dituzten Lizarrako biztanleek eskatu ahalko dute euskara ikasteko beka:

- a) 16 urtetik gorakoa izatea.
- b) Estella-Lizarrako erroldan inskribatuta egotea izena eman baino urte bat lehenago epearekin.

Ikastaroaren amaierako datan ere eskatzaileak erroldaturik egon beharko du dagokion beka osoa jasotzeko. Horrela ez balitz, baja dataren araberrako ordainketa proportzionala egingen litzateke.

- c) Estella-Lizarrako herritarrak izan eta euskarazko birziklapen programatan dauden administrazioko langileak ez dira arautegi honetan sartuko.
- e) Diru-laguntza jasotzeko ezinbestekoa izanen da tributu arloko betebeharrak eguneratuak izatea.

**2.2) Ikastaroarenak:**

Diru-laguntza hau 2014-2015 ikasturteari buruzkoa da.

Diruz lagunduko dira euskara ikastea helburua duten ikastaro homologatu mota guztiak: estentsiboak (120 ordu baino gehiago), trinkoak (70 ordu baino gehiago), barnetegiak (gutxienez 7 egun).

Eskatzaileek bakarrik jaso ahalko dute beka maila bereko ikastaro batengatik. Salbuespenak aztertuko ditu organo eskudunak, betiere, eskatutako gutxieneko asistentzia egiaztatzen bada (eskola ordu guztien %75).

**3. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA**

Eskaerak Estella-Lizarrako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira epe honen barnean: **irailaren 1etik 30era**, biak barne, epe luzaezina izanen da. Epe honetatik kanpo ez da eskaerarik onartuko.



#### 4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

4.1. Eskabide orokorrarekin batera:

- Familiaren diru-sarrerak gordinak adierazten dituen agiria. Diru-sarrerak ziurtatzeko, azkeneko Errenta Zergaren aitortpenaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da, edo, aitortpena egiteko beharra ez dutenen kasuan, hori adierazten duen Foru Ogasunak eginiko agiri bat. Hori aurkeztu ezean, eskatzaileak jasotako familiaren diru-sarrerak gordinen Zinpeko Aitorpena aurkeztu beharko du, eta ziurtagiriekin frogatu.

- **Ikastaroa antolatzen duen erakundeak izenpeturiko dokumentua**, non hari buruzko baldintzak azaldu behar diren: iraupen data, maila, ordu kopurua eta ikastaroaren kostua. Diru-laguntza kobratu ahal izateko, asistentziak %75 gainditu beharko du.

- **Matrikularen ordainagiria** (banketxeak edo ikastaroa antolatu duen erakundeak emana).

- Diru-laguntza jasotzeko nahi den **banku-libretako lehen orrialdearen fotokopia**.

4.2. Diruz lagundutako ikastaroa bukatu eta gero (edonola ere, 2015eko irailaren 30a baino lehen) euskaltegiak edo ikastaroaren erakunde antolatzaileak egindako asistentzia-agiria gehitu beharko da. Diru-laguntza eskuratu ahal izateko asistentziak %75tik gorakoa izan beharko du. Bertan ikasleak gainditutako maila(k) ere azalduko dira. Eskatutako agiri guztiak jatorrizkoak izanen dira edo bestela, Udalak konpultsatuak.

#### 5. DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA

Eskabideak ondoren adierazten den bezala baloratuko dira:

a) Kontutan hartuko dira familiaren urteko diru-sarrerak gordinak (errenta aitortpeneko 507, 8810 eta 8808 laukitxoetako kopuruen batura ken 708 laukitxoko kopurua) eta familia unitatea osatzen duten pertsonen artean zatitu.

b) Familiaren diru-sarrerak gordinentzat hartuko dira, beka eskatzen den familia unitatekoak direnak. Eskatzailea gurasoekin bizi bada, horien diru-sarrerak ere kontutan hartuko dira. Berriz, ez dira kontutan hartuko anai-arrebak edo etxebizitza berdinean bizi diren beste kideenak, baldin eta ez badute inolako senidetasunik.

c) Aurreko guztiak aparte, eskatzailearen familiako diru-sarrera erreala frogatzeko, Udala beharrezkoak baiesten dituen froga-agiri guztiak eska ditzake.

Diru-laguntzek justifikatutako kopurutik portzentaje bat emanen dute ondorengo baremo ekonomikoaren arabera:

PCE >5000 €.....	75%
PCE 5001 € eta 8000 € artean.....	60%
PCE 8001 € eta 10.000 € artean.....	45%
PCE 10.001€ eta 15.000 € artean.....	30%
PCE 15.001 € eta 20.000 € artean.....	20%
PCE >20.000 €.....	10%

Edozein kasutan, eta aurrekontu izatearen arabera, Udalak beste irizpide batzuk aplikatuko ditu, behar izanez gero, hala nola eskatzaile kopurua eta bakoitzari egokitutako kopurua, kantitate horren banaketa proportzionala eta bidezkoa egin ahal izateko. Azken hau aplikatuz gero, egokitutako kantitatean moldaketak suerta daiteke.



AYUNTAMIENTO  
ESTELLA-LIZARRA  
UDALA

5.1. Edonola ere, deialdi bakoitzean ikasleak ez du 250 € baino gehiago jasoko.

## **6. EBAZPENA ETA ORDAINKETAK**

6.1. Eskaera aurkezten denean ikastaroa bukatu bada, ikasleak bekaren % 100 jasoko du, Udaleko Euskara Zerbitzuak aldeko txostena egin eta udal organo eskudunak ebazpena eman eta gero.

6.2. Ebazpenaren kontra, bide administratiboa itxiko duena, errekurtsio hautakoren bat jarri ahalko da aukeran:

- ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIERREKURTZOA, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien eskumeneko organo eskudunari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik BI HILABETEKO epean.
- GORA JOTZEKO errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta ONDOKO HILABETEAN.
- BERRAZTERTZEKO errekurtsioa, egintza ebatzi duen organoari zuzendua, erabakia jakinarazi eta hilabeteko epea

## **7. ESKATZAILEAREN BETEBEHARRAK**

a) Diruz laguntzen diren ikastaroetan suerta daitezkeen aldatzea esanguratsuen Udalarari jakinarazi behar dira.

b) Baloratzaillei bere eginkizunean laguntzea.

c) Diruz laguntzen diren ikastaroengatik eskatzaileek beste erakunde baten diru-laguntza jasotzen badute, berehala adierazi beharko diote Estella-Lizarrako Udalarari. Bertako batzordeak diru-laguntzatik emateko kopurua aztertuko du.

## **8. EZ BETETZEAK**

Diru-laguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzen aldatzeak emate ebazpena aldatzea edo deuseztatzea ekar lezake.

## **9. ARAUTEGIA**

Oinarri hauek interpretatzeko eta ezartzeko Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege-Dekretua, Diru-laguntzei buruzko arautegia.

Estella-Lizarrar, 2015eko ekainaren 20an  
Alkatea